

BALORE PROPOSAMENA

Nazio Batuen garapen jasagarriko bosgarren helburua genero-berdintasuna da, eta arazo hori oso garrantzitsua iruditu zaigu, munduko biztanleriaren % 50 inguru emakumeak direla kontuan hartuta. Genero-desberdintasunak bizitzako alderdi guztiei eragiten die, hala nola lan, gizarte eta politika-esparruei. Bakarrik bidaiatzean emakume askok jasaten duten beldurrean eta deserosotasunean jarri nahi izan dugu arreta; izan ere, nahiz eta tristea izan emakume izanda bakarrik bidaiatzea askotan arriskuaren sinonimoa da. XXI. mendean egon arren, emakume izateak ondorio arriskutsuak ditu oraindik ere: kaleko jazarpena, sexu-jazarpena edo heriotza. Horiek emakumeek beren etxeetan eta bidaiatzen dutenean aurre egiten dieten arazoak dira. Hala ere, alde batetik bidaiatzean ez dugula lekua ezagutzen, eta horrek arrisku handiagoak ekar ditzakeela. Bakarrik bidaiatzen duten emakumeen ehunekoa gero eta handiagoa da; izan ere, Estatu Batuetan egindako ikerketa batzuek erakutsi dute Interneten “solo travel”-en (bakarkako bidaia) bilaketa % 267 igo dela 2020ko abendutik. Egindako ikerketetan, ere ikusi da bakarrik bidaiatu nahi duten gizon gehienek prezioa dutela kezka handiena, eta emakumeen % 42k segurtasunak kezkatzen dituela. Horregatik, bidaiatzeko orduan emakumeen segurtasuna lehenetsiko duen app bat egitea da gure helburua.

Dagoeneko badira bidaiak antolatzen dituzten konpainiak, berbarako; Edreams, Tripadvisor eta Lastminute.com. Hala ere, gure proiektua ezberdintzen duen ezaugarri nagusia, soilik emakumei zuzendutako aplikazioa izanik, bidaiatzean eta bidaia antolatzerakoan emakumeen segurtasuna bermatzeko eta bidaiatzean euren interesa dituzten gaiak bilduko dituela izango da. Badira jada Bilboko “Good Hostel” eta “Ganbara” bezalako proiektu batzuk, emakumeen segurtasuna bermatzeko soilik emakumeen ostaturia eskaintzen dutenak, Good Hostelen kasuan logela mistoekin batera, baina gure proposamenarekin haratago joan nahi dugu. Guk udalerritik ezberdinetan establezimendu-sare bat sortuko dugu, emakumeak eroso eta seguru senti daitezzen bakarrik egonda. Bidaiaren etapa eta arlo guztietan gozatu ahal izateko, ez bakarrik ostaturia.

Gainera, garrantzi berezia emango diogu gure kontsumitzaileen iritzari, establezimendu guzti-guztiak eta hiri guztiak bere osotasunean baloratzeko aukera emanez. Horrela, emakumeek modu erraz eta bisualean ikusi ahal izango dute zein hiri diren seguruena bakarrik bidaiatzen duten emakumeentzat, bakarrik bidaiatzen duten emakumeen arabera. Izan ere, iritzirik garrantzitsuenak haienak bait dira.

Gure aplikazioan ziurtatuko dugu soilik konfiantza dugun eta emakumeen segurtasuna baloratzen duten establezimenduak erakutsiko ditugula. Gure aplikazioa doakoa izango da kontsumitzaileentzat, ordaindu beharko duten bakarrik establezimenduak izango dira. Horretaz gainera, gure app-aren beste funtzio bat geolokalizatzaile bat eskaintzea izango da, erabiltzaileei beren kokapenetik gertu establezimenduak aurkitzeko aukera emango diena.

